LARRAULGO UDALA

(GIPUZKOA)

2021eko IRAILAREN 30ean, LARRAULGO UDAL PLENO ARETOAN EGINDAKO OHIKO UDALBATZAREN AKTA

2021eko irailaren 30ean, arratsaldeko 15.30 orduetan, Maite Arana Perez Alkate andrearen Lehendakaritzapean, behean aipatzen diren zinegotziak biltzen dira eginiko bilkura honetan.

ZINEGOTZIAK:

Vicente Garcia Momblona
Jose Antonio Rodriguez Rodriguez
Mireia Ruiz Delgado
Maialen Alonso Labandibar
Jesus Maria Tejada Cantero

BERE EZIN ETORRIA ADIERAZTEN DU: Aitor Beistegui Fiallegas zinegotzia

Bertan dago, egintzaz fede emateko Ane Gomez Urteaga Idazkari-kontuhartzailea.

...//...

Alkate-lehendakari andreak bilerari hasiera ematen dio, ondorengo gaiak tratatzen direlarik:

1. **Ondoren adierazten den Udalbatzarretako akta onestu, hala badagokio/ Aprobación, si procede de la siguiente acta Plenaria:**
   - **2021eko uztailaren 29an egindako ohiko bilkura/ Sesión ordinaria de fecha 29 de julio de 2021.**
2. **Alkatetza ebazpenen berri ematea/ Dación de cuenta de los decretos de Alcaldía.**
3. **Fakturak eta ordainketak/ Pagos y facturas.**
4. **2022 ekitaldirako Udal Ordenantza Fiskalak eta Udal zerbitzuak eskaintzeagatik Tasa eta Prezio Publikoen Ordenantzak onartzea, hala bada/ Aprobación de las Ordenanzas Fiscales y Ordenanzas de Tasas y Precios Públicos por prestación de Servicios Municipales para el ejercicio 2022.**
5. **2021-2022 ikasturterako Larraulgo herritarrei euskara ikastaroak burutzeko diru-laguntzaren oinarrien onespena, hala bada/ Aprobación, si procede, de las bases de la subvención para la realización de cursos de euskera a la población de Larraul para el curso 2021-2022.**
6. **Tolosako hiltegi Mankomunatuari 2021 urteko ekarpena burutzeko onespena./ Aprobación de la aportación economica al Matadero Mancomunado de Tolosa correspondiente al ejercicio 2021.**

7. **LANDARRI S.L.-k Larraulgo hilerriko ustiapena eta kudeaketa zerbitzua Aurrera eramateko eginiko proposamenaren azterketa./ Estudio de la propuesta de LANDARRI S.L. para llevar a cabo el servicio del cementerio de Larraul.**
8. **2021/2022 ikasturtean, Larraulen, Euskal Dantza ikastaroaren zerbitzua emateko Itziar Uzkudun andreari esleipena, hala bada./ Adjudicación del contrato de servicios a Itziar Uzkudun, para impartir un curso de Euskal Dantza en Larraul durante el curso escolar 2021/2022.**
9. **2021/2022 ikasturtean, Larraulen, Gorputza adierazpena, antzerkia eta zirkoa ikastaroaren zerbitzua emateko Harkaitz Jimenez Castaño jaunari esleipena, hala bada./ Adjudicación del contrato de servicios a Harkaitz Jimenez Castaño, para impartir un curso de Expresión corporal, teatro y circo en Larraul durante el curso escolar 2021/2022.**
10. **Larraulgo hilerriaren landa elektrifikaziorako obren kontratuaren esleipena /Adjudicación del contrato de obras para la electrificación rural-cementerio de Larraul.**
11. **Beste batzuk/Otros.**
12. **Erregu, galderak eta mozioak/Mociones, ruegos y preguntas.**

LEHENENGO PUNTUA
ONDOREN ADIERAZTEN DEN UDALBATZARRETAKO AKTA ONESTU, HALA BADAGOKIO

- 2021 urteko uztailaren 29an egindako Udalbatzaren ohiko bilkurako akta. Irakurri ondoren aho batez onesten dute.

BIGARRENGO PUNTUA
ALKATETZA EBAZPENEN BERRI EMATEA

Ondoren, Udaleko Idazkari-Kontuhartzaileak adierazten du 99/2021etik 114/2021era Lehendakari Ebazpenak eman direla. Bertaratuak jakinaren gainean geratu direlarik.

HIRUGARRENGO PUNTUA
FAKTURAK ETA ORDAINKETAK

Alkate-Lehendakari andreak ondorengo faktura zerrenda aurkeztu du:

GIPUZKOAKO UR KONTSORTZIOA	4.675,75
GIPUZKOAKO URAK	3.968,44
GUREAK	0,54
TOLOSALDEKO MANKOMUNITATEA	733,14
TOLOSALDEKO MANKOMUNITATEA	974,41

D.S.D.	76,00
URKAMENDI	146,07
IZFE	2.054,60
IZFE	38,66
IRATZE	1.270,50
TOLOMENDI	931,35
ONBIZI	571,52
BERRI LANTEGIA	25,77
BULEGOAK	111,93
BERRI LANTEGIA	89,04
HERRI OSTATUA	219,75
HERRI OSTATUA	292,50
ERROITZ	229,97
GUREAK	2,71
IRATZE	2.238,50
SECURITAS DIRECT	49,01
SECURITAS DIRECT	47,19
CORREOS	10,05
KIROLZER	21,15
ALKAIN	25,14
BERDINKI ZIRKU GARAIKIDE ELKARTEA	2.000,00
MUSICOS UNIDOS SIGLO XXI S COOP MAD	996,10
LANDARRI	544,50
GUREAK	1,94
PULSE BY NEUROTIKA&SOINUEDER	1.089,00
TOLOSALDEKO MANKOMUNITATEA	-75,45
A&P NEW FILMS	242,00
LANKU	2.429,38
MATTIN GIZARTE ABENTURA	387,20
ZU ETA BIOK	513,26
SECURITAS DIRECT	49,01
EBA ERKIZIA	876,38
URKAMENDI	30,25
MAQUELSA	27,30
SECURITAS DIRECT	47,19
OSCAR GALINDO	121,00
EBA ERKIZIA	332,26
MAQUELSA	9,58
KIROLZER	21,15
ARDOXKA	212,50
ARINEKETAN KULTUR ELKARTEA	1.750,00
IÑAKI ESNAL	100,00
NORTEGAS	33,75
NORTEGAS	6,35
IBERDROLA	131,49

IBERDROLA	48,64
IBERDROLA	89,84
IBERDROLA	86,96
IBERDROLA	24,10
IBERDROLA	108,05
IBERDROLA	22,04
IBERDROLA	100,96
IBERDROLA	58,61
IBERDROLA	118,65
TELEFONICA	99,83
TELEFONICA	153,64
TELEFONICA	27,59
TELEFONICA	151,40
TELEFONICA	97,41

Udalbatza honek, **aho batez** hurrengoa,

ERABAKITZEN DU

BAKARRA.- Aipaturiko fakturak, denera **31.867,55** Eurotako kopurua osatzen dutenak onartzea.

LAUGARREN PUNTUA

2022 EKITALDIRAKO UDAL ORDENANTZA FISKALAK ETA UDAL ZERBITZUAK ESKAINTZEAGATIK TASA ETA PREZIO PUBLIKOEN ORDENANTZAK ONARTZEA, HALA BADA

Ikusirik 2022 urterako udal ordenantza fiskalak aztertzeko unea dela.

Ikusirik 2021 urteko irailaren 14an Udaleko Behin Behineko Idazkari-Kontuhartzaileak igorritako txostena, non jasotzen den ordenantza fiskalak sortu, aldatu eta ezabatzeko jarraitu beharreko prozedimendua, batetik, eta bestetik, 2021ko ekitaldian Udala aplikatzen datorren zerga eta tasak.

Gaia eztabaidatu ondoren, Udalbatzak, ahobatez,

ERABAKITZEN DU:

LEHENA.- 2022 urterako zergak arautzen dituzten ordenantza fiskalari dagokionez, ondorengo aldaketak onestea:

1.ZERGAK

1. ONDASUN HIGIEZINEN GAINEKO ZERGA

2021 URTEAN INDARREAN EGON DIREN TARIFAK:

- Hiri Ondasun Higiezinen gaineko Zergari aplikagarri zaion karga tasa zoru industrial edo tertziarioan: %0,3.
- Gainerako hiri ondasun higiezinei aplikagarri zaien karga tasa: %0,23.
- Landalur Ondasun Higiezinaren gaineko Zergari aplikagarri zaion karga tasa: %0,6.

TARIFAK MANTENTZEA PROPOSATZEN DA

2021 URTEAN INDARREAN EGON DIREN HOBARIAK

- Famili Ugariak (3 ume edo gehiago) % 50.

- Eguzki aprobetxamendu termiko sistemak %25.

HOBARI HAUEK MANTENTZEA PROPOSATZEN DA ETA ONDORENGOA ONARTZEA

Gizarte-bonuaren laguntza:

Gaur egun, autokontsumoa sustatzearen ondorioz, udal-ekimen askok teknologia berriztagarri horietan inbertitzea sustatzen dute, OHZn hobarien bidez denbora-tarte jakin batean.

Kasu estandar bat OHZ osoaren %25eko hobaria izan daiteke lehenengo 4 urteetan edo inbertsioaren kostu osoaren %30era iritsi arte (honekin batera doa neurrien azterketa).

Horren bilakaera gisa, autokontsumo kolektiboa hedatzea ere helburu, autokontsumo partekaturako ekimenak sortzen hasi dira (Madril eta Cadizen kasua). Tratamendua berdin-berdina da; izan ere, azken finean, banaka

inbertsioa egiten duten eta OHZn banakako autokontsumoaren antzeko hobariak dituzten bizilagun-komunitateak aipatzen dituzte**.**

ENERGIA-KOMUNITATEAK

Sustatzen ari garen TEK ereduan, etxeek ez dute inbertsiorik egin beharrik edo beren izenean kreditua izan beharrik. Horrek zaildu egiten du OHZko hobaria, ez baitago banakako inbertsio ukigarririk murrizketa hori egiteko.

Gainera, proiektuaren kostu osoa hainbat erakundek diruz laguntzen dute (gaur egun badaude EEEk, Gipuzkoako Foru Aldundiak eta, seguruenik, Europako funtsetatik datozen laguntzak).

Beraz, ereduak berak aurrezkiak sortzen ditu, eta, beraz, horrelako hobari fiskal batek ez luke leku handirik izango.

Hala ere, bada kasu berezi bat: bonu soziala.

Bonu hori eskuratzeko baldintzak betetzen dituzten familiek azken aukerako merkaturatzaile batekin kontratatuta izan behar dute tarifa elektrikoa.

Neurri hori koherentea izan liteke, kostu elektrikoak finkatuta baitaude eta merkaturatze elektrikoaren gaineko irabazi-marjina handiak saihesten baitituzte, baina merkaturatzaile arautu horiek dute energia ez-berriztagarriaren ehuneko handiena beren mix elektrikoan.

Hori dela eta, bateraezina da %100 berriztagarria izan nahi duten familiek bonu sozialaren pribilegio horri eusteko aukera izatea. Bateraezina da jatorri berriztagarria duen hornidura elektrikoa izatea eta bonu soziala lortzea.

TEKak energia-pobrezia borrokatu nahi duen eredua izanik, guztiz inkoherentea da etxe horiek egoera hori gal dezaten eskatzea. Beraz, hau proposatzen da:

-**Bonu soziala duten familiek, %100 berriztagarria den eta autokontsumoa (banakakoa zein kolektiboa) duten hornidura aldatzen bada, urteko hobaria lortzea OHZn, bonu sozialak urtean sortzen dituen aurrezki elektrikoen baliokidea. Hau da: urtean 150€**

Onuradun izateko ondorengo baldintza bete beharko da: " bonu sozialaren onuradun izatea".

2. EKONOMI IHARDUEREN GAINEKO ZERGA

Koefizientea gehienez 2,2 arte igo daiteke. Topean dago, beraz ezin liteke igo.

KOEFIZIENTEA MANTENTZEA PROPOSATZEN DA

Ez dago hobaririk onartuta.

3. TRAKZIO MEKANIKOZKO IBILGAILUEN GAINEKO ZERGA

2021 URTEAN INDARREAN EGON DIREN HOBARIAK

- Ibilgailu historikoak % 50.

-Zerga-kuotaren %75eko hobaria, ibilgailuen motorraren ezaugarrien arabera eta horiek ingurugiroan duten eraginaren arabera

-Hobari hau %95ekoa izango da, motor elektrikoa dueten ibilgailuen kasuan

HOBARI HAUEK MANTENTZEA PROPOSATZEN DA

2021 URTEAN INDARREAN EGON DIREN TARIFAK.

Gaur egun **% 1,73** koefizientea aplikatzen da

TARIFAK MANTENTZEA PROPOSATZEN DA

Ibilgailu mota eta potentzia	Euroak	Koefizientea	Proposamena
A)**Turismoak:**			
9 zaldi fiskal bitartekoak	31,81	%1,73	31,81
9 - 11,99 zaldi f. bitartekoak	63,63	%1,73	63,63
12 - 13,99 zaldi f. bitartekoak	106,05	%1,73	106,05
14 - 15,99 zaldi f.bitartekoak	148,47	%1,73	148,47
16 - 19,99 zaldi f.bitartekoak	190,89	%1,73	190,89
20 zaldi fiskaletik gorakoak	233,31	%1,73	233,31

B) **Autobusak:**			
21 plaza bitartekoak	144,11	%1,73	144,11
21 - 50 plaza bitartekoak	205,25	%1,73	205,25
50 plazatik gorakoak	256,56	%1,73	256,56
C)**Kamioiak:**			
1.000 kg. Bitarteko karga erabilgarria	73,14	%1,73	73,14
1.000 - 2.999 kg. bitarteko	144,11	%1,73	144,11
2.999 - 9.999 kg. Bitarteko	205,25	%1,73	205,25
9.999 kg-tik gorako	256,56	%1,73	256,56
D)**Traktoreak:**			
16 zaldi fiskal bitartekoak	30,57	%1,73	30,57
16 – 25 zaldi f. bitartekoak	48,04	%1,73	48,04
25 zaldi fiskaletik gorakoak	144,11	%1,73	144,11
E)**Trakzio mekanikoko ibilgailuen atoi eta erdi-atoiak**:			
750-1000 kg. bitarteko karga erabilgarria	30,57	%1,73	30,57
1.000 - 2.999 kg. Bitarteko k.e.	48,04	%1,73	48,04
2.999 kg.tik gorako karga e	144,11	%1,73	144,11
F)**Gainerako ibilgailuak:**			
Ziklomotoreak	7,80	%1,73	7,80
Motozikletak: 125 z.k. bitartekoak	7,80	%1,73	7,80

Motozikletak 125 - 250 z.k. bitartek	13,36	%1,73	13,36
Motozikletak 250 - 500 z.k. bitartek	26,73	%1,73	26,73
Motozikletak 500 - 1.000 z.k. bitartek	53,46	%1,73	53,46
Motozikletak 1.000 cctik gora	106,90	%1,73	106,90

4.ERAIKUNTZA, INSTALAZIO ETA OBREN GAINEKO ZERGA

Tipoak jadanik nahiko altuak dira.

Ondorengo hobaria mantentzea proposatzen da:

% 50-eko hobaria, eraikuntza, instalazio eta obrek ezgaitasun bat duten pertsonen irisgarritasun eta bizigarritasun baldintzak errazten dituztenean.

Hobari hau aplikatzeko ondorengo baldintzak bete beharko dira:

- Ezgaitasun kalifikazioa edukitzea.
- Mugikortasun baremoan, gutxienez 7 puntu izatea.
- Kuota zehazteko, obraren aurrekontu osoa hartuko da kontuan, baldin eta obraren helburu bakarra eraikina ezgaitasunen bat duen pertsonen sarbide eta bizi baldintzak hobetzea bada.
- Obrek eraikina berritzeko helburua badute, baina aurrekontuan beste partida batzuk ere jasotzen badira ezgaitasunen bat duten pertsonen sarbide eta bizi baldintzak hobetzeko egokitzapenez gain, dagokion partidak bakarrik hartuko dira kontuan hobari eskubidea duen kuota zehazteko. Horretarako, nahitaezkoa izango da aurrekontua ondo bereizita aurkeztea helburu hori duten obren zatian.

2021 URTEAN INDARREAN EGON DIREN TARIFAK

Baserrien berrikuntza: % 2,50. Onuradun izateko nekazaritza ustia lekuen erroldatze agiria aurkeztu beharko du.

Besteak:

a) 60.000,00 euro arteko aurrekontua dutenak: %4,50.

b) 60.000,01 euro baino gehiagoko aurrekontua: %5,00.

TIPOAK MANTENTZEA PROPOSATZEN DA

5. HIRILURREN BALIOEN GEHIKUNTZAREN GAINEKO ZERGA

2021 URTEAN INDARREAN EGON DIREN TARIFAK:

Portzentaiak:

a) 1 urte 5 urtera bitarteko %3,6

b) 10 urte artekoa %3,4

c) 15 urte artekoa %3,1

d) 20 urte artekoa %2,9

Karga Tasa: % 6,30 da eta ezin du % 10ª gainditu

TARIFAK MANTENTZEA PROPOSATZEN DA

2. TASAK

1. ZERBITZU PUBLIKOAK ESKAINI ETA JARDUERA ADMINISTRATIBOAK BURUTZEAGATIK ORDAINDU BEHARREKO TASAK

2021 URTEAN INDARREAN DAUDEN TARIFAK ETA 2022 URTERAKO PROPOSAMENA MANTENTZEARENA DA

1.1. UR-HORNIDURAREN ZERBITZUA:

Ur horniketa: Ur kontsumoa	**2021**	**2022**
1.1.1.Etxez-etxeko ur hornidura		

30m3.bitartekoa, hiru hilabetea	18,00€	18,00€
31m3tik goragokoa, hiru hilabetean	0,74€/m3 bakoitza	0,74€/m3 bakoitza
1.3.Udal azpiegituren mantentzea Guztientzat, hiruhilabeteko	10,00 €	10,00 €
1.4.- Hasierako engantxea etxe berrietan, etxeko	120,00€	120,00€
1.5.- Hobariak: Gizarte ongizateak proposatuak ikus I. eranskina.		

1.2. ZABOR BILKETA ZERBITZUA:

2021 URTEAN INDARREAN DAUDEN TARIFAK ETA 2022 URTERAKO PROPOSAMENA MANTENTZEARENA DA

ZABORRAK	2021	2022
1.Etxez-etxeko bilketa, hiruhileko	34€	34€
2. Industria, komertzio eta taberna bilketa, hiruhileko	48€	48€
3. Etxez-etxeko bilketa, konpostaia egiten ez dutenak, hiruhileko	86€	86€
4. Industria, komertzio eta taberna bilketa, konpostaia egiten ez dutenak,hiruhileko	120€	120€
5. **Hobariak:** Gizarte ongizateak proposatuak ikus I. eranskina		

1.3. HIRIGINTZ BAIMENAK ETA HIRIGINTZ DOKUMENTUAK IZAPIDATZEAGATIK

Egun indarrean dauden tasak ondorengoak dira:

DOKUMENTU ADMINISTRATIBOEN IGORPENA	Euroak
1.Hirigintza kontsulta	80€
2. Segregazio baimena	80€
3. Lehen erabilera baimena	105€/etxeko
4. Edozein P.E.R.I. , Zati Plana, Urbanizazio proiektu, konpentsazio proiektu	1.600€
5. 60.000 euro baino gutxiagoko aurrekontua duten obratako lizentzien izapidetzea	30€
6. 60.000 euro baino gehiagoko aurrekontua duten obratako lizentzien izapidetzea	50€
7. Jarduera baimenak: - Klasifikatutako jarduera: -Klasifikatutako jardueraren aurretiazko komunikazioa:.	110,00 € 80,00 €
8. Baimenik gabeko edo ezkutuko obra baimenaren legeztapena: Obra lizentzia emateagatik ateratako tasaren %200.	

AIPATURIKO TASAK MANTENTZEA PROPOSATZEN DA

1.4.-HILETA ZERBITZUA

Egun indarrean dauden tasak ondorengoak dira:

HILETA ZERBITZUA	Euroak
1.Hezurtegiaren emakida: **Behin-betiko emakida, plaka barne**	195€
2. Nitxoen emakida: **-15 urteko epean, plaka (familiak erosi beharko du)eta apala** **-5 urte bitarteko luzapenagatik**	180€ 125€
3. Lurperatze tasa nitxoan	48
***LURPERATZEA KANPOKO ENPRESA BATEK EGITEN BADU, HAUEK FAKTURATUTAKO KOSTUA ORDAINDU BEHARKO DA**	

AIPATURIKO TASAK MANTENTZEA PROPOSATZEN DA

1.5. KIROL INSTALAZIOEN ERABILERA:

KIROL INSTALAZIOAK	Euroak
1.Kirol instalakuntzen erabilera	3€/orduko

AIPATURIKO TASAK MANTENTZEA PROPOSATZEN DA

1.6. MUSEO ETNOGRAFIKORA BISITAK:

	Euroak
Larraulgo museo etnografikora bisitak	2€/pertsonako

AIPATURIKO TASAK MANTENTZEA PROPOSATZEN DA

1.7.HAURREK ETA GAZTEAK SUSTATZEKO SAILAREN ZERBITZU-EMAKIDA ETA JARDURA GAUZATZEA:

LARRAULGO UDALA

(GIPUZKOA)

JARDUERAK	Euroak
1.Euskal Dantza: **-Lehenengo haurra** **-2. Eta 3. haurrak**	 15€/ hileko 12€/ hileko
2.Esku pilota **-Lehenengo haurra** **-2. Eta 3. haurrak**	 12€/ hileko 9€/ hileko
3.Gorputz adierazpena, antzerkia eta zirkoa **-2012-2016 artean jaiotako larrauldarrek** **-2012-2016 artean jaiotako erroldatu gabeak** **-2004-2011 artean jaiotako larrauldarrek** **-2004-2011 artean jaiotako erroldatu gabeak**	 20,00€/hileko 25,00€/hileko 25,00€/hileko 30,00€/hileko
4.Ikastaro desberdinak (Kostearen arabera finkatuko dira, behin ere ezingo du izan, kostea baino handiagoa)	
-Dantza, musika, antzerki etab. ikuskizunak	10,00€ gehienez

AIPATURIKO TASAK MANTENTZEA PROPOSATZEN DA

2. UDAL JABARI PUBLIKOAREN ERABILERA PRIBATIBO EDO APROBETXAMENDU BEREZIAGATIK ORDAINDU BEHARREKO TASAK

Tasa hauen barnean ondorengo kontzeptuak daude aurreikusiak eta onartuak:

2.1. UDAL KALEETAKO ZOLUA, HEGALKINA ETA LURRAZPIA PRIBATIBOKI ERABILTZEA EDO BEREZIKI APROBETXATZEA, HORNIDURA ZERBITZUA USTIATZEKO ENPRESEN ALDE

Udal kaleetako zolua, hegalkina eta lurrazpia hornidura zerbitzua ustiatzeko enpresen alde pribatiboki erabiltzeari edo bereziki aprobetxatzeari dagokion prezioa, zerbitzu horiek gehientsuenengan edo biztanlegoaren zati garrantzitsuarengan eragina dutenean, enpresa horiek udalerrian urtero lotzen duten fakturazioko diru sarrera gordinen %1,5ekoa izango da.

Ondoren aipatzen den ordenantza onartzea proposatzen da:

3. KONTRIBUZIO BEREZIETAKO ORDENANTZA FISKAL OROKORRA

I. XEDAPEN OROKORRAK

1. artikulua

Udal honek, Toki Ogasunak erregulatzen dituen Lurralde Historikoko Foru Arauan aurreikusitakoaren arabera, obrak egin edo udal zerbitzuak ezarri nahiz hedatzeagatiko Kontribuzio Berezietako Ordenantza Orokorra onesten du.

2. artikulua

Ordenantza udal barruti osoan aplikatzen da.

II. EGITATE EZARGARRIA

3. Artikulua

Udal obrak burutu edo Udalak udal zerbitzu publikoak ezarri nahiz hedatzearen ondorioz sujetu pasiboak hobaria edo bere ondasunen balioaren gehikuntza lortzea dugu kontribuzio Berezien egitate ezargarria.

4. artikulua

1. Hurrengo hauek hartuko dira udal obra eta zerbitzutzat:

a) Bere eskumenen esparruan, egotzirik dituen xedeak betetzeko Udalak egiten dituenak, ondare ondasunen jabe gisa egiten dituztenak salbu.

b) Bestelako Entitate Publikoek egotzi edo delegatu dizkiolako Udalak egiten dituenak eta beste lan eta zerbitzuak, legeriaren arabera horien titulartasuna onartu baldin badu.

c) Bestelako Entitate Publikoek nahiz horien kontzesiodunek Udalaren ekarpen ekonomikoaz burutzen dituztenak.

2. Aurreko zenbakiko a) hizkian sartutakoek ez dute udal obra edo zerbitzu kontsiderazioa galduko nahiz eta kapital sozial osoa Udalarena duten Organismo Autonomo edo Merkataritza Sozietateek, udal ekarpena duten kontzesiodunek edo zergadunen administrazio elkarteek burutuak izan.

5. artikulua

Kontribuzio bereziengatik bildutako zenbatekoak, haiek exijitzeko arrazoi izan zen obra edo zerbitzuaren gastuak ordaintzeko bakarrik erabili ahal izango dira.

III. SUBJEKTU PASIBOA

6. artikulua

1. Zerga ordaintzeko beharra sortzen duten obren burutzapenaz edo udal zerbitzuen ezarpen nahiz hedaketaz onura berezia ateratzen duten pertsona fisiko eta juridikoak eta Lurralde Historikoko Foru Tributu Arau Orokorraren 33. artikuluak aipatzen dituen Entitateak dira kontribuzio berezietako sujeto pasiboak.

2. Hurrengo hauek onura berezia ateratzen dutela kontsideratuko da:

a) Ondasun higiezinei dagozkien obrak egin edo zerbitzuak ezarri nahiz hedatzeagatiko kontribuzio berezietan, ondasun higiezinen jabeak.
b) Enpresa ustiapenen ondoriozko obrak egin edo zerbitzuak ezarri nahiz hedatzeagatiko kontribuzio berezietan, enpresetako tituludun diren pertsona edo entitateak.
c) Suteen itzalketa zerbitzuak hedatu edo hobetzeagatiko kotribuzio berezietan, erasandako ondasunen jabeez gain, udalerriaren barruan beren iharduerak alor horretan burutzen dituzten aseguru konpainiak.

d) Lurrazpiko bideak egiteagatiko kontribuzio berezietan, geroago erabiliko dituzten enpresa hornitzaileak.

3. Jabetza horizontaleko errejimeneko kasuetan, etxejabeen komunitateko ordezkaritzak, etxejabeen izena eta komunitatearekiko partehartze-koefizientearen berri emango dio Udal Administrazioari kuota indibidualak igorri ahal izateko. Horrela egingo ez balitz kuota bakarra igortzea onartzen dela ulertuko da, elkartea bera arduratuko delarik ondorengo banaketaz.

IV. OINARRI EZARGARRIA

7. artikulua

1) Kontribuzio berezietako oinarri ezargarria, gehienez ere, obra egin edo zerbitzuak ezarri nahiz hedatzeagatik Udalak jasan behar duen kostuaren %90a izango da. Ordenamendu erabakia hartzerakoan, ezar daitekeen portzentaje finkatuko du, kasu bakoitzean.

2) Aipatu kostua hurrengo kontzeptuek osotuko dute:

a) Peritu lan, proiektuen idazketako lanen eta lan, plangintza eta programa teknikoen zuzendaritza lanen benetako kostua.
b) Egin beharreko obren edo zerbitzuen ezarketa nahiz hedatze lanen zenbatekoa.
c) Obra nahiz zerbitzuen etengabe okupatu beharko lurren balioa salbu, erabilera publikoko ondunak, Udalari doan eta obligazioz lagaturiko lurrak edo legerian ezarritako baldintzetan lagaturiko ondasun higiezinak direnean.
d) Eraikuntzak erautsi eta landaketa, obra edo instalazioak berritzetik etorritako indemnizazioak hala nola birrindu nahiz okupatu beharreko ondasunen errentariengandik etorritakoak.
e) Obra nahiz zerbitzuetan inbertituriko kapitalaren interesa, kontribuzio bereziek estaltzen ez duten parterako edo horiek orokorrean zatituz gero estalitako zatirako Udalak kreditua erabili beharko balu.

3) Obra nahiz zerbitzuetarako aurreikusi guztizko kostuak aurreikuspen izaera hutsa izango du. Benetako kostua aurreikusitakoa baino haundiago edo txikiagoa balitz, hura hartuko litzateke dagozkion kuotak kalkulatzeko.

4) Aurreko 4.1.c) artikuluak aipatzen dituen obra nahiz zerbitzuak direnean edo, artikulu bereko 2 zenbakiko kontzesiodunek egindakoak direnean, kontribuzio berezietako oinarri ezargarria, ekarpen horien arabera zehaztuko da, obra edo zerbitzu beraren zioz beste Administrazio Publikoek ezar ditzaketenei kalterik eragin gabe. Nolanahi ere, artikulu honetako lehen zenbakiak aipatzen duen %90eko muga errespetatuko da.

5) Oinarri ezargarria ezartzeko, guztizko kostuari Udal Administrazioak lortuko dituen subentzio edo laguntzen zenbatekoa kendu ondoren lortzen den emaitza hartuko da Udal Administrazioak jasandako kostutzat.

6) Aipatu subentzio edo laguntza, kontribuzio bereziko sujetu pasiboaren batek emango balu, zenbatekoa pertsona edo entitate horren kuota konpensatzeko erabiliko da lehendabizi. Subentzio edo laguntzaren balioak kuota hori gaindituko balu, gehiegizkoa gainerako sujetu pasiboen kuotetatik kenduko da, hainbanatuz.

V. KUOTA

8. artikulua

1) Kontribuzio Berezien oinarri ezargarria sujetu pasiboen artean banatuko da, obra eta zerbitzu mota eta izaera kontutan hartuz, hurrengo erregelon arabera:

a) Orokorrean, eraikinen fatxadako metro linealak, azalera, horien bolumen eraikigarria eta Ondasun Higiezinen gaineko Zergaren eraginetarako katastroko balioa aplikatuko dira, batera nahiz banan-banan, banaketamodulu gisa.
b) Suteen itzalketarako zerbitzuaren ezarpen, hedapen edo hobekuntza denean, udal barrutian kokaturiko ondasunen arriskua estaltzen duten entitate edo sozietateen artean egin daiteke banaketa, aurreko urtean bildutako primen zenbatekoaren proportzioan. Subjektu pasibo bakoitzari eska dakiokeen kuota berak bildutako kuoten zenbatekoaren %5a baino handiagoa balitz, gehiegizkoa hurrengo ekitaldietara atzeratuko da, guztiz amortizatu arte.
c) Ordenantza honetako 6.artikuluko d) atalak aipatzen dituen obrak direnean, kontribuzio berezien guztizko zenbatekoa, erabiltzaile izango diren konpainia edo enpresen artean banatuko da, horietako bakoitzari erreserbaturiko espazioaren arabera edo horien sekzio osoaren arabera, nahiz eta berehala erabili ez.

9. artikulua

Aplikagarri den legeriak edo Nazioarteko Hitzarmenek hobari fiskalak ematen dituztenean, onuradunei legozkiekeen kuotak ez dira ginerako zergadunen artean banatuko.

10. artikulua

Ordaindu beharreko kuota finkatu ondoren, sujetu pasiboak horrela eskaturik, Udalak horren zatiketa edo gehienez ere bost urtetako epean luzatzea onetsi ahal izango du.

VI. TRIBUTUAREN SORTZEPENA

11.artikulua

1. Kontribuzio bereziak lanak burutu diren edo zerbitzuak eskaintzen hasten diren unean sortzen dira. Lanak zatikagarriak balira, sortzapena sujetu pasiboetatik bakoitzarentzat sortuko da, obraren tarte edo zati dagozkionak egiten direnetik.

2. Aurreko zenbakian ezarritakoaren kalterik gabe, ezarri eta ordenatzeko erabakia onartu ondoren Udalak kontribuzio berezien aldez aurreko ordainketa eskatu ahal izango du, hurrengo urterako aurreikusi kostuaren zenbatekoaren arabera. Ezin izango da urteko ordainketa berri bat eskatu, ez badira bukatu obrak bukatu zeintzuetan aurrerakina eskatu bait zen.

3. Kontribuzio berezien sortzapen unean kontutan hartuko da ordaindu behar duen pertsona zehazteko xedez, 6.artikuluan ezarritakoaren arabera, nahiz eta ordenamendu erabaki konkretuan subjektu pasibo gisa agertu onarpendatan subjektu zena eta horrek kuotak aurreratuak izan arren, artikulu honetako bigarren zenbakian ezarritakoaren arabera. Ordenamendu erabaki zehatzean subjektu pasibo gisa agertzen den pertsonak, horren jakinarazpena izan duelarik, ezarpena sortzen duten ondasun edo ustiapenen gaineko eskubideak eskualdatzen dituenean aipatu erabakia hartzen denetik sortzapena hasterainoko epearen barruan, egindako eskualdaketaren berri eman beharko dio Udal Administrazioari hori gertatu eta hurrengo hilabetean, eta horrela egingo ez balu, Administrazio horrek, espedientean subjektu pasibo gisa agertzen denaren kontrako kobraketa tramiteak egin ahal izango ditu.

4. Behin obrak osorik edo partzialki bukaturik edo zerbitzua ematen hasi ondoren, subjektu pasiboak, oinarria eta behin betiko kuota bananduak finkatuko dira, egoki diren likidazioak eginik eta egin litezkeen ordainketa aurreratuak konturako emaitza gisa konpentsatuz. Behin betiko finkatzen hori Udal Administrazioak egingo du, kasu horretako obra edo zerbitzurako tributuaren ordenamendu erabaki zehatzeko arauak beteaz.

5. Aurreratutako ordainketak tributuaren sortzapen unean subjektu pasibo izaera ez duten pertsonek egiten badituzte, edo dagokien behin betiko kuota indibiduala gainditzen badu Udal Administrazioak ofizioz egingo du beharrezko itzulketa.

VII. EZARPENA ETA ORDENAMENDUA

12. artikulua

1. Kontribuzio bereziak eskatu ahal izateko aldez aurretik haiek ezartzeko erabakia hartu beharko da kasu konkretu bakoitzean.

2. Kontribuzio berezien bidez finantzatu behar den obra bat egin edo zerbitzu bat ezarri nahiz hedatzeari buruzko erabakia ezin izango da bete, aurrekoen ordenamendu zehatza onartu bitartean.

3. Ordenamendu erabakia nahi eta nahi ez hartu beharko da eta horren barruan obra eta zerbitzuen kostu aurrikusiaren zehaztapena, onuradunen artean banatu beharreko kantitatea eta banaketa erizpideak agertuko dira. Ordenamendu erabaki zehatza Ordenantza honen araberakoa izango da.
4. Kontribuzio berezietako ordenamendu erabakia harturik eta ordaindu beharreko kuotak zehazturik, banan banan jakinaraziko zaizkie sujetu pasiboei beraiek edo beren helbideak ezagunak balira eta, horren ezean, ediktu bidez. Inteteresatuek birjarpen arrekurtsoa jarri ahal izango dute Udalaren aurrean hala nola erreklamazio ekonomiko administratiboa Lurralde Historikoko Foru Auzitegi Ekonomiko-Administratiboaren aurrean, horien edukina kontribuzio berezien egokitasuna, onura berezia ateratzen duten pertsonek ordaindu beharreko kostuaren portzentaia edo asignaturiko kuotak izan daitezkeelari. 13. artikulua 1. Udal Konpetentziako obra eta zerbitzuak Udalak burutu edo eskaintzen baditu bestelako Entitate Lokalen baten kolaborazio ekonomikoarekin eta, foru-arautegian ezarritakoaren araberako kontribuzio bereziak ezartzen baldin badira, horien kudeaketa eta bilketa lanak burutzeko edo zerbitzuak ezarri nahiz hedatzeko ardura hartzen duen Entitateak egingo ditu, ezarpen eta ordenamendu erabakiei dagokienean entitate bakoitzak bere konpetentzia gordetzearen kalterik gabe. 2. Horietako entitateren batek ordenamendu erabki zehatza onartuko ez balu, eraginik gabe geldituko da iharduketa unitatea, bakoitzak bere aldetik hartuko dituztelarik beharrezko erabakiak.

VIII. HERRITARREN KOLABORAZIOA

14. artikulua

1. Obrek erasandako jabe edo tituludunek zergadunen administrazio Elkartea osotu ahal izango dute eta obren burutzea edo udal zerbitzuen ezarpen nahiz hedaketa sustatu, obra edo zerbitzuaren izaeraren arabera dagozkienak gain, Udalari dagokion partea ordaintzeko konpromezua hartuz, Udalaren finantza egoeragatik berak egin ezin izango balu.

2. Halaber, obren burutzeak edo Udalak zerbitzu publikoak ezartze nahiz eratzeak erasandako jabe edo tituludunek zergadunen administrazio Elkarteak

osotu ahal izango dute kontribuzio berezien ordenamendu akordioaren jendaurreko epealdian.

15. artikulua

Aurreko artikuluak aipatzen dituen zergadunen administrazio Elkarteak osotzeko, erasandakoen gehiengo osoak hartu behar du erabakia, beti ega gutxienez, ordaindu beharreko kuoten bi herenak baldin badira.

16. artikulua

1. Zergadunen Elkarteen funtzionamendua, Toki Ogasunak erregulatzen dituen Foru Araua garatuko duten erregelamenduzko arauek ezartzen dutenaren araberakoa izango da.

2. Nolanahi ere, zergadunen administrazio Elkarteak harturiko erabakiak, kideen gehiengoarekin eta ordaindu beharreko kuoten bi herenak ordezkatuz, obligaziozkoak izango dira gainerakoentzat. Elkarte horrek, beharrezko quorumarekin, Batzorde edo Batzar Beterazlea izendatuko balu, honek harturiko erabakiek indarra izango dute interesatuak behartzeko.

3. Zergadunen administrazio Elkarteek, 14.artikuluko lehen eta bigarren zenbakietan ezarritakoaren arabera osotu ondoren, obra eta zerbitzuen zuzeneko exekuzioa eskatu ahal izango diote Udalari.

Horretarako, hurrengo baldintza hauek hartuko dira kontuan:

a) Exekuzioa Udal Administrazioak egindako proiektuko baldintza eta epeak beteaz egin beharko da edo, gutxienez Elkarteak aurkeztu eta Udalak onartu proiektuaren arabera.
b) Aipatu exekuzioa, nolanahi ere, Udalak izendaturiko teknikarien zuzendaritzapean egingo dira.
c) Elkarteak bere gain hartuko du interes publiko nahiz pribatuei sortu ahal zaizkien kalteen ardura, hala nola exekuzioaren atzerapenarena eta behin betiko jaso ondorengo bost urteetan ager litezkeen ezkutuko bizioena.
d) Udalak ahalmena du zergadunen administrazio Elkarteek aipatu obra eta zerbitzuen exekuziorako egingo dituzten proposamenak onartu ala errefusatzeko.
e) Obra eta zerbitzuetarako udal ekarpena, horrelakorik baldin balego, behin betirako jaso eta berehala egingo da.

IX. AZKEN XEDAPENA

Ordenantza honek aldatu edo indargabetzea erabakitzen ez den artean jarraituko du indarrean.

BIGARRENA.- 2022 ekitaldirako ondorengo Zerga Egutegia finkatzea:

2022 EKITALDIRAKO ZERGA EGUTEGIA

1.- HOBARI ESKAERA:

- 2022 urteko otsailaren 1etik 28ra bitartean.

2.- TRAKZIO MEKANIKODUN IBILGAILUAK:

- 2022 urteko apirilaren 1etik ekainaren 1 arte.

3.- URA ETA ZABORREN TASA:

2022 urteko maiatzaren 2tik uztailaren 4 arte.
2022 urteko abuztuaren 1etik urriaren 3 arte.
2022 urteko urriaren 3tik abenduaren 30arte.
2023 urteko otsailaren 1etik apirilaren 3 arte.

HIRUGARRENA.- Erabakitakoaren berri udal iragarki taulan eta Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean argitaratuz ematea, 30 laneguneko epea irekiz edonork espedientea aztertu eta erreklamazioak edota iradokizunak aurkezteko, bere kasuan. Erreklamaziorik aurkeztuko ez balitz, hartutako erabakiak behin-betikoz onartutzat emango dira beste erabakirik hartu gabe.

LARRAULGO UDALA

(GIPUZKOA)

I.Eranskina

2022KO UR ETA ZABORREN TASEN HOBARIEN TAULA/TABLA PARA EL EJERCICIO 2022 DE BONIFICACION DE TASAS DE AGUAS Y BASURAS

Behartsuenei hobariak ematerakoan, bi ezaugarri hartzen ditugu kontuan/ A la hora de dar ayudas a los necesitados se tienen en cuenta dos conceptos:

1. Familiaren kide kopurua, hots, etxean bizi diren pertsona kopurua (ezkerreko zutabea)/Número de miembros de la unidad familiar (tabla de la izquierda)
2. Familia osatzen duten kide guztien hileko dirusarrerak, indarrean dagoen Lanbidearteko gutxieneko soldata, oinarri hartzen delarik.
   Ingresos económicos mensuales de todos los miembros de la Unidad Familiar, tomando como base, el Salario Mínimo interprofesional vigente.

L.G.S / S.M.I Urtero finkatzen du Madrilgo Gobernuak

Hileroko soldata maila, Profesioarteko Gutxieneko Soldatarekin konparatuz. **Nivel de sueldo, Comparando con el SALARIO MINIMO INTERPROFESIONAL**							
	LGS edo < SMI .o <	**LGS + % 10 SMI.+% 10**	**LGS +% 20 SMI + % 20**	**LGS +% 30 SMI + % 30**	**LGS +% 40 SMI + % 40**	**LGS + % 50 SMI + % 50**	**LGS + % 60 SMI + % 60**
1-2	%100	%75	%50	%25	------	-------	-------
3	%100	%100	%75	%50	%25	---------	--------
4	%100	%100	%100	%75	%50	%25	---------
5	%100	%100	%100	%100	%75	%50	%25
6	%100	%100	%100	%100	%100	%75	%50
7	%100	%100	%100	%100	%100	%100	%75
8 edo +	%100	%100	%100	%100	%100	%100	%100

- D.B.E EDO G.L.L KOBRATU ETA KRITERIO HAUEN BARRUAN EZ DIREN KASUAK BANAKA AZTERTUKO DIRA/- Si cobra R.G.I. O AES, los no contemplados dentro de estas categorías se estudiarán caso por caso.
- KONTSUMO MIN = $60M^{3\,(semestral)}$/ CONSUMO MINIMO $60M^{3(}$ seis meses)

ONDASUN BAT BAINO GEHIAGO DITUZTEN PERTSONEK EZ DUTE HOBARIRIK JASOKO/LAS PERSONAS PROPIETARIAS DE MAS DE UN BIEN NO COBRARÁN ESTAS AYUDAS.

L.G.S. :Lanbidearteko gutxieneko soldata; S.M.I.: Salario minimo interprofesional.

D.B.E.: Dirusarrerak bermatzeko errenta; R.G.I.: Renta de garantia de ingresos

G.L.L.: Gizarte larriunetarako laguntzaK; A.E.S.: Ayudas de emergencia social.

BOSTGARREN PUNTUA

2021-2022 IKASTURTERAKO LARRAULGO HERRITARREI EUSKARA IKASTAROAK BURUTZEKO DIRU-LAGUNTZAREN OINARRIEN ONESPENA, HALA BADA

Alkate-Lehendakari andreak eskaturik Udaleko Idazkari-Kontuhartzaile andereak 2021-2022 ikasturterako Larraulgo biztanleentzat eta bertan jarduera ekonomikoak burutzen dituztenentzat euskara ikastaroak burutzeko diru-laguntzak arautzen dituzten oinarrien zirriborroa prestatu du.

Zirriborroa banatu ondoren eta gaia azterturik, Udalbatza honek, aho batez

ERABAKITZEN DU:

LEHENGOA.- 2021-2022 ikasturterako Larraulgo biztanleentzat eta Larraulgo udalerrian jarduera ekonomikoak burutzen dituztenentzat euskara ikastaroak burutzeko diru-laguntzak arautzen dituzten oinarriak onartzea.

BIGARRENGOA.- Diru-laguntza eskaera egiteko epea, 2021eko urriaren 1etik 2022ko uztailaren 31arte zabalduko da.

HIRUGARRENGOA.- Aipaturiko deialdia jendaurrean jartzea.

SEIGARREN PUNTUA

TOLOSAKO HILTEGI MANKOMUNATUARI 2021 URTEKO EKARPENA BURUTZEKO ONESPENA

Ikusirik Tolosaldeko Hiltegiko Mankomunitateak 2021eko martxoaren 23an egindako bilkuran, aho batez erabaki zuela, Mankomunitateko kide diren Udalek egin beharreko ekarpena, ondorioz, Larraulgo Udalari 184,00 euroko ekarpena egitea suposatzen dio.

Gaia azterturik, Udalbatza honek, aho batez, ondorengoa

ERABAKITZEN DU:

LEHENA: Tolosaldeko Hiltegi Mankomunitateari 2021 urteari dagokion ekarpena onestea eta burutzea, 184,00 euroko diru kopuruan. Ordainketa hau 2021eko Udal aurrekontuetako 422.431.40.01 partidaren kargura egingo da.

BIGARRENA: 184,00 euroko gastua onestea.

ZAZPIGARREN PUNTUA
LANDARRI S.L.-k LARRAULGO HILERRIKO USTIAPENA ETA KUDEAKETA ZERBITZUA AURRERA ERAMATEKO EGINIKO PROPOSAMENAREN AZTERKETA

Batzarkideak, aho batez, gaia mahai gainean uztea erabakitzen dute, gaiari buruzko informazioa osatu bitartean.

ZORTZIGARREN PUNTUA
2021/2022 IKASTURTEAN, LARRAULEN, EUSKAL DANTZA IKASTAROAREN ZERBITZUA EMATEKO ITZIAR UZKUDUN ANDREARI ESLEIPENA, HALA BADA

Kontuan hartuta Larraulgo udalerrian 2021-2022 ikasturtean zehar garatuko diren ekintzak eta izena emandakoen kopurua ikusirik,

Ikusirik 2017ko SPKLaren 62. artikuluan ezarritakoaren arabera kontratazioko organoak kontratuaren arduraduna izendatu behar duela.

Ikusirik Kontratu txikia dela, SPKLren 131.3. artikuluan ezarritakoaren arabera, eta luzaezina den urte beteko iraupena duela, aipatu Legearen 29.8. artikuluaren arabera.

Gaia azterturik, bertaratuek, aho batez, ondorengoa,

ERABAKITZEN DUTE:

LEHENA: Itziar Uzkudun Sarasola andreari esleitzea, Larraulgo herrian 2021/2022 ikasturterako dantza klaseak eman ditzan. Guztira, **1.350,00€ (BEZa salbuetsita)** kopuruko gastua izanik.
2021eko ekitaldiari dagokionez, udal aurrekontuko 226.337.20.06. kontu-sailetik finantzatuko da, eragindako etorkizuneko ekitaldietan dagozkion kredituak gordetzeko hitza hartuz.

BIGARRENA: Itziar Uzkudun Sarasola andrearekin, zerbitzu emakidarako administrazio-kontratu bat sinatzea 2021-2022 ikasturtean zehar, 2021eko urriaren 6tik 2022ko ekainak 17arte, horretarako egokitutako udalaren lokaletan dantza eskolak emateko, ordu bakoitzeko 25,00 euroko prezioagatik, BEZa salbuetsita.

HIRUGARRENA: Emango den ikastaroko orduak 2021-2022 ikasturterako ekintzen programazioan Udaleko Kultura batzordeak finkatutakoak izango dira, eta printzipioz, ordu horiek ikasturte guztirako 54 izango dira. Hori

guztira, 1.350,00 euro inguruko kontratazioko aurrekontu bat da (BEZa salbuetsita).

LAUGARRENA: Kontratuaren arduraduna Udaleko kultura dinamizatzailea izendatzea.

BOSTGARRENA: Ordainketa, faktura aurkeztutakoan egingo da. Faktura egin beharko da indarrean dagoen legediak zehazten duen bezala eta lana jasotzen duen unitatea, edo, hala balegokio, kontratuaren arduraduna ados egonda. Zerbitzua eman dela egiaztatzen duen agiria onartu ondoren, 30 eguneko epean ordainduko da faktura.

SEIGARRENA: Ebazpen hau interesatuari, udaleko ekonomia sailari eta kultura sailari jakinaraztea, dagokion errekurtsoak adieraziz.

BEDERATZIGARREN PUNTUA
2021/2022 IKASTURTEAN, LARRAULEN, GORPUTZA ADIERAZPENA, ANTZERKIA ETA ZIRKOA IKASTAROAREN ZERBITZUA EMATEKO HARKAITZ JIMENEZ CASTAÑO JAUNARI ESLEIPENA, HALA BADA

Kontuan hartuta Larraulgo udalerrian 2021-2022 ikasturtean zehar garatuko diren ekintzak eta izena emandakoen kopurua ikusirik,

Ikusirik 2017ko SPKLaren 62. artikuluan ezarritakoaren arabera kontratazioko organoak kontratuaren arduraduna izendatu behar duela.

Ikusirik Kontratu txikia dela, SPKLren 131.3. artikuluan ezarritakoaren arabera, eta luzaezina den urte beteko iraupena duela, aipatu Legearen 29.8. artikuluaren arabera.

Gaia azterturik, bertaratuek, aho batez, ondorengoa,

ERABAKITZEN DUTE:

LEHENA: Arkaitz Jimenez Castañori esleitzea, Larraulgo herrian 2021-/2022 ikasturterako gorputz adierazpena, antzerkia eta zirkoa klaseak eman ditzan. Guztira, ***2.430,00 € (BEZa salbuetsita)*** *kopuruko gastua izanik.*
2021ko ekitaldiari dagokionez, udal aurrekontuko 226.337.20.06. kontu-sailetik finantzatuko da, eragindako etorkizuneko ekitaldietan dagozkion kredituak gordetzeko hitza hartuz.

BIGARRENA: ARKAITZ JIMENEZ CASTAÑO *rekin, zerbitzu emakidarako administrazio-kontratu bat sinatzea 2021-2022 ikasturtean zehar, 2021ko urriaren 4tik 2021ko ekainak 17ra arte, horretarako egokitutako udalaren lokaletan dantza eskolak emateko, ordu bakoitzeko 45,00 euroko prezioagatik, BEZa salbuetsita.*

HIRUGARRENA: Emango den ikastaroko orduak 2021-2022 ikasturterako ekintzen programazioan Udaleko Kultura batzordeak finkatutakoak izango dira, eta printzipioz, ordu horiek ikasturte guztirako 54 izango dira aprox. Hori guztira, 2.430,00 euro inguruko kontratazioko aurrekontu bat da (BEZa salbuetsita).

LAUGARRENA: Kontratuaren arduraduna Udaleko kultura dinamizatzailea izendatzea.

BOSTGARRENA: Ordainketa, faktura aurkeztutakoan egingo da. Faktura egin beharko da indarrean dagoen legediak zehazten duen bezala eta lana jasotzen duen unitatea, edo, hala balegokio, kontratuaren arduraduna ados egonda. Zerbitzua eman dela egiaztatzen duen agiria onartu ondoren, 30 eguneko epean ordainduko da faktura.

SEIGARRENA: Ebazpen hau interesatuari, udaleko ekonomia sailari eta kultura sailari jakinaraztea, dagokion errekurtsoak adieraziz."

HAMARGARREN PUNTUA
LARRAULGO HILERRIREN LANDA ELEKTRIFIKAZIORAKO OBREN KONTRATUAREN ESLEIPENA

Larraulgo Udalak, Larraulgo hilerriaren landa elektrifikazioarako lanak egiteko premian agertzen da, gaur egun hilerriak ez duelako elektrifikazio sistemarik.

Ikusita Larraulgo Udalak ez dituela medio pertsonal eta materialik lan hauek egiteko.

Ikusita behar hauek, Larraulgo Udalak hiru aurrekontu eskatu ditu lan hauek egiteko, konkretuki: ELECNOR INFRAESTRUCTURAS, MURGIL ERAIKUNTZAK S.L. eta EDS enpresei.

Azaroaren 8ko 9/2017 Sektore Publikoko kontratu legeko 118 artikuluaren arabera kontratu txiki baten aurrean gaude. Obra kontratu txiki baten aurrean.

Artículo 118. Expediente de contratación en contratos menores.

1. Se consideran contratos menores los contratos de valor estimado inferior a 40.000 euros, cuando se trate de contratos de obras, o a 15.000 euros, cuando se trate de contratos de suministro o de servicios, sin perjuicio de lo dispuesto en el artículo 229 en relación con las obras, servicios y suministros centralizados en el ámbito estatal.

En los contratos menores la tramitación del expediente exigirá el informe del órgano de contratación motivando la necesidad del contrato.

Asimismo se requerirá la aprobación del gasto y la incorporación al mismo de la factura correspondiente, que deberá reunir los requisitos que las normas de desarrollo de esta Ley establezcan.

2. En el contrato menor de obras, deberá añadirse, además, el presupuesto de las obras, sin perjuicio de que deba existir el correspondiente proyecto cuando normas específicas así lo requieran. Deberá igualmente solicitarse el informe de las oficinas o unidades de supervisión a que se refiere el artículo 235 cuando el trabajo afecte a la estabilidad, seguridad o estanqueidad de la obra.

3. En el expediente se justificará que no se está alterando el objeto del contrato para evitar la aplicación de las reglas generales de contratación, y que el contratista no ha suscrito más contratos menores que individual o conjuntamente superen la cifra que consta en el apartado primero de este artículo. El órgano de contratación comprobará el cumplimiento de dicha regla. Quedan excluidos los supuestos encuadrados en el artículo 168.a).2.º

4. Los contratos menores se publicarán en la forma prevista en el artículo 63.4.

Obra kontratu txiki bat bezala hartu behar da, 40.000 € azpitik dagoelako eta bestalde, Udalbatzaren eskuduntza ere bada, gastua 3.000,00**€** gainetik ere dagoelako.

Bestalde adierazi behar dugu kontratuaren xedea ez dugula aldatzen kontratazio administratiboko arau orokorrak edo prozedurak ekiditeko.

Gaia azterturik, Udalbatza honek, aho batez, ondorengoa

ERABAKITZEN DU:

LEHENA: ELECNOR INFRAESTRUCTURAS enpresari hilerriaren landa elektrifikazioarako lanak egiteko kontratua esleitzea 16.780,35€ (BEZa kanpo), 601.151.00.01 kontu sailaren kontura “Azpiegiturak”.

BIGARRENA: Erabaki honen berri ELECNOR INFRAESTRUCTURAS, MURGIL ERAIKUNTZAK S.L. eta EDS enpresei ematea.

HAMAIKAGARREN PUNTUA
BESTE BATZUK

11.1. 3/2021 ZENBAKIDUN KREDITU ALDAKETAREN HASIERAKO ONESPENA

LARRAULGO UDALA

(GIPUZKOA)

Larraulgo Udal honetako Aurrekontuari eragiten dion kreditu gehigarrien bidez egin beharreko kreditu aldaketarako espedientea irakurri da.

Idazkari-Kontuhartzaileak egindako txostenak dioenez, aipatutako espedientea aplikagarria zaion araudiari egokitzen zaio, eta zehazki Gipuzkoako Toki Erakundeen Aurrekontuei buruzko abenduaren 19ko 21/2003 Foru Arauaren 34. artikuluan ezarritako beharkizun eta tramiteei.

Eztabaidatu ondoren, Udalbatza honek, aho batez, honako hau

ERABAKITZEN DU:

LEHENA**:** Larraulgo Udal honen aurtengo ekitaldiko Aurrekontuari eragiten dion kreditu gehigarrien bidez egin beharreko kreditu aldaketarako espedientea onestea, proposamenaren eta ondoko kapitulukako laburpenaren arabera:

KREDITU GEHIGARRIEN PROPOSAMENA

Udal zerbitzuek dituzten premiei eta obligazioei aurre egiteko, beharrezkoa da hainbat gastu berehala egitea. Izan ere, horiek atzeratuz gero sortuko litzatekeen kalteak eragin nabarmena izango luke zerbitzuen kalitatean. Aurrekontuaren exekuzioaren arabera, ordea, gastu partidetan ez dago nahiko krediturik aipatutako gastuei aurre egiteko. Ondorioz, kredituak sortzeko edo, hala badagokio, gehitzeko proposatzen da, ondoko taulako xehetasunaren arabera:

Gastuen partida	Azalpena	Kredituak		
		Egungoak	Aldaketak	Behin betikoak
1 0000.622.342.00.01 2021	ZERB.FUNTZ.INBERTS: PILOTALEKUKO KONPONK	103.000,00	7.000,00	110.000,00
1 0000.601.414.00.01 2021	AZPIEGITURAK: LANDA ELEKTRIFIKAZIOA	0,00	20.305,00	20.305,00
1 0000.226.338.00.06 2021	HERRIKO JAIAK	9.000,00	2.900,00	11.900,00
1 0000.131.153.40.01 2021	ALDAR.LABOR.ORDAINK.OBR.BRIGADA	11.620,00	2.500,00	14.120,00
1 0000.933.011.00.01	MAILEGUEN AMORTIZAZIOA	100,00	2.000,00	2.100,00

2021				
1 0000.689.924.00.01 2021	AURREKONTU PARTEHARTZAILEAK	6.800,00	600,00	7.400,00
1 0000.601.153.20.01 2021	AZPIEGITURA ETA URBANIZAZ: BASERRI BIDEA	13.900,00	1.700,00	15.600,00
1 0000.623.153.30.02 2021	ZERB.FUNTZION. INBERTSI: PARKEAREN KONP	0,00	2.227,77	2.227,77
1 0000.210.933.00.01 2021	AZPIEG.ETA ONDAS.GASTUAK: OSTATUA	370,00	674,00	1.044,00
1 0000.628.332.10.01 2021	LIBURUTEGIRAKO LIBURUAK	800,00	70,00	870,00
1 0000.626.332.10.01 2021	LIBURUTEGIRAKO EKIPO INFORMATIKOA	0,00	800,00	800,00
	GUZTIRA	145.590,00	40.776,77	186.366,77

Kod.	Partida	Azalpena	Zenbatekoa
c	2 0000.720.414.00.01 2021	DIPUTAZIOA: LANDA ELEKTR.LAGUNTZA	12.957,44
a	2 0000.870.000.00.01 2021	GERAKINAK	26.597,33
c	2 0000.710.332.10.04 2021	EAE-KO KAPITAL TRANSFER:LIBURU FUNTSAK	672,00
c	2 0000.710.332.10.02 2021	EAE-KO KAPITAL TRANSFER:TEKNOLOGIA BERRI	550,00
		FINANTZAKETA GUZTIRA	**40.776,77**

BIGARRENA: Jendaurrean ikusgai jartzea, erreklamazioen ondorioetarako. Erreklamaziorik aurkezten ez bada, erabaki hau behin-betikotzat joko da. Espediente honi Aurrekontu Orokorra onesteko ezarritako gainerako tramiteak eman beharko zaizkio

HAMABIGARREN PUNTUA
ERREGU, GALDERA ETA MOZIOAK

Ez dira aurkezten.

Beste gairik ez dagoenez, arratsaldeko 16:45 orduak direnean Alkate andreak bilera amaitutzat ematen du, nik, behin-behineko Idazkaria naizen honek akta honetan jasotakoa ziurtatzen dudalarik.